

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

20/2019 Foru Agindua, uztailaren 31koa, baimentzen duena Beatriz Gómez Santamaría eta Beatriz Carrero Vegas behin-behineko izendatzea Laudioko Udaleko kontuhartzaile lanposturako

Laudioko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen horren beharra daukala, Laura Sánchez Ibáñez udaleko kontuhartzailea ordezkatzeko oporretan dagoenean.

Hortaz, proposatzen du korporazio horretako karrerako funtzionario diren Beatriz Gómez Santamaría eta Beatriz Carrero Vegasen behin-behineko izendapena egitea.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Beatriz Gómez Santamaría izendatzea behin-behinean Laudioko Udaleko kontuhartzaile, eginkizun horretan jardun dezan 2019ko abuztuaren 5ean eta 6an, titularra ez dagoen bitartean, eta Beatriz Carrero Vegas ere bai 2019ko abuztuaren 12tik 14ra (biak barne).

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako aldian baino ez du indarrik.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Laudioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 31

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SÁENZ